


# Globalizazioaren doktrinamendua espazio domestikoan

**Laburpena:** Era transnacionalean gertatzen den globalizazio-prozesuak hiri-espazioak ulertu eta bizitzeko joerak aldatzeaz gain, espazio domestikoan ere eragina du. Hurrengo lerroetan, eraiki berri edo eraikitzeke dauden etxebizitza-promozioen lagin bat hartuz, homogeneizazio-prozesua aztertuko da.

**Hitz-gakoak:** espazio domestikoa, homogeneizazioa, globalizazioa.

**Abstract:** The transnational globalization process, in addition to changing the way we understand and live urban space, it has effects on domestic space. In the following lines, taking samples of housing promotions which have been recently built or the ones to be built, the homogenization process will be analysed.

**Keywords:** domestic space, homogenization, globalization.



Andoni Duque Ingunza eta Irantzu Ibañez Espinosa  
Arkitektoak, Halo arkitektura

Jasotze data: 2020-08-17

Onartze data: 2020-11-17

## Doktrinamendu-aztarnen bila

Argi dago hirigintza eta arkitektura eraikiek lotura zuzena dutela momentuko errealitate politiko, sozial, ekonomiko eta teknologikoarekin; hori horrela izanik, egun, garai honetan bizi dugun kapitalismoaren eragina azter dezakegu.

Kapitalismoa produkzio-modeloa dela erakutsi zigun Marxek, baina Weberren arabera bizitzeko modua ere badela argi daukagu (Ander-Egg, 2007). «Munduan nolakoa izan» horrek balio neoliberaletatik abiatutako portaera-eskeman du oinarria, hau da, kontsumo-gizarteak markatutako bidean jarraitzean errotzen da. Berlineko harresiaren gainbeheraren momentutik, sistema kapitalistak proposatzen duen izateko-bizitzeko era munduan zehar zabaldu eta errotuz joan da, besteak beste, indibidualtasunaren papera goraiatuz eta gainontzeko jokamoldeak hutsal bihurtuz.

Prozesu honen agente aktibo moduan, askotan nabarmendua izan da ikus-entzunezkoen produktuek zein marketin-kanpainak adimenen domestikazioan eragiten dutela, jarraitu beharreko ideologia nagusiak norbanakoaren ikusezintasunera garamatzalarik. Mendebaldeko gehiengoaren desioak behin eta berriro gogoraraztean, norabide berean ibiltzea iradokitzen digute, homogeneizazio kulturalaren hazia ereinez.

Prozesu honen inguruan Zaida Muxíren *La arquitectura de la ciudad global* liburuan aipatzen den moduan, «globalizazio-prozesuaren ekiteko era lurraldearen jabetze, hiria egiteko modu eta berezko arkitektura bati estuki lotua dago» (Muxí, 2004). Liburuak hiru eskala aztertzen ditu: hiri-plangintzan bilatzen den hiri-marka, hiri-antolakuntzan ematen diren

aisialdi-kontsumo espazioak eta azkenik bizitegi gune-tipologia berriak. Sarreratik argi erakusten du bere hipotesia, bere ustez «ekimen globalak izaera lokala era gradualean desagerrarazten du, munduan zehar zabaltzen diren proposamen klonatuekin bere interesak gailenduz».

Hirigintza-mailan izan duen eraginaz gain, eta eskala txikiagoko arkitekturara salto eginez, globalizazio neoliberalaren prozesu honek eragina izango al du eskala domestikoan? Definitzen al du gure etxearen barne-antolaketa eta bertan bizitzeko era gure izaera bideratuz?

Ekonomia eta botere globalizatuek gidatutako mundu honetan, doktrinamendurik bada, horrek eskala globala izango duela argi ikusten dugu. Hau da, botereak programaturik edo sistemaren ondorio izanik, doktrinazio hori gertatzekotan, mundu zabaleko arkitektura domestikoaren eskaintza homogeneizaturik agertuko litzateke. Izaera lokalaren disoluzioa gertatzen da? Proposamen klonatuak zabaltzen ari dira?

## Etxebizitza-eskaintzaren azterketa-jolasa

Hau guztia aztertzeko, esku artean ditugun baliabideak erabiliz, gaur egungo eta munduko zenbait hiritan aurki daitezkeen etxebizitza-promozio berrien eskaintzaren inguruan analisi-jolas bat egiten saiatu gara. Bizileku horien barne-banaketa bano ez diogu erreparatuko, arkitektura eta espazio domestikoen adierazgarri zuzenena baita.


Analisirako sustatzaile batzuen webguneetan salgai dauden promozio berrien artean oin plano a zutenak aukeratu ditugu alderaketa era garbiago batean egin ahal izateko.

Horrela, bi logelako etxebizitzak hartu ditugu, eta atikoak edo bestelako espazio gehigarriak zituztenak baztertu ditugu (honek bizitokien tamaina mugatu digu).


Horretarako, hiri kontsolidatu zein horien eremu metropolitarran kokatzen diren etxebizitzak hartu ditugu kontuan, eskualde garrantzitsu baten hiriburu diren eremu metropolitarrak. Era berean, jatorri kultural ezberdinen erakusgarri izan daitezkeen hirietako etxebizitzak topatzen saiatu gara, hala nola Chicago, Casablanca, Acra edota Pekin.

Aipatu beharra dago Interneten topatutako promozioak izanik, erosle posiblearen perfila mugatu izana. Era berean, beste analisi sakonago baterako utziko genituzke bestelako faktore batzuk, hala nola balkoi/terrazen presentzia (promozio konkretuaren kalitatearekin erlazionatuta egon daitekeena) edo barne-banaketaren eta biztanleen egoera sozioekonomikoaren arteko erlazioa.


Irakurtzen jarraitu aurretik, gurekin jolasa partekatzeke, testua laguntzen duten barne-banaketak ikuskatu eta horien inguruko gogoeta txikia egitea proposatzen dizuegu; zein herrialde edo kontinentetan kokatuko lirartekeen asmatzen saiatuz esaterako.




**Irudia** ~ Foresta Panama Norte, Panama Hiria. Panama.  
**Iturria** ~ www.forestapanama.com  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.




**Irudia** ~ Henrietta's Residences, Cantonments, Acra. Ghana.  
**Iturria** ~ www.devtracoplus.com  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.




**Irudia** ~ Belem Panamby, Sao Paulo. Brasil.  
**Iturria** ~ www.zapimoveis.com.br  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.




**Irudia** ~ Eden- Living the next level, Frankfurt. Alemania.  
**Iturria** ~ www.residential.jll.de  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.




**Irudia** ~ Résidence «Echellalate», Tit Mellil, Casablanca. Maroko.  
**Iturria** ~ www.mubawab.ma  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.




**Irudia** ~ *Shuny, Pekin. Txina.*  
**Iturria** ~ [www.xinchengguoyufu.fang.com](http://www.xinchengguoyufu.fang.com)  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.




**Irudia** ~ *Ramat Beit Shemesh Daled, Beit Shemesh, Jerusalem. Israel.*  
**Iturria** ~ [www.israel-properties.com](http://www.israel-properties.com)  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.



**Irudia** ~ *North + Vine apartments, Chicago. EEBB.*  
**Iturria** ~ [www.apartments.com](http://www.apartments.com)  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.



**Irudia** ~ *Belle Vue Shinbashi, Tokyo. Japon.*  
**Iturria** ~ [www.rise-corp.tokyo](http://www.rise-corp.tokyo)  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.



**Irudia** ~ *Aires de Fuentelucha, Alcobendas, Madrid. Espainia.*  
**Iturria** ~ [www.airesdefuentelucha.com](http://www.airesdefuentelucha.com)  
**Egileak** ~ Andoni Duque Inguza eta Irantzu Ibañez Espinosa.

### **Irudi-analisiaren ondorioak**

Hemen ageri diren eta kanpoan geratutako beste oin plano batzuk aztertuta esan dezakegu, ezen globalizazioak bultzatutako homogeneizazio kulturalaren prozesuak eragin garbia izan duela munduko etxebizitzaren eskaintzan; hainbestera, non kultura oso diferenteen arteko barnebanaketak ezin desberdin daitezkeen. Oro har, bai forma-tamaina bai erabileraren aldetik espazio bertsuak topatu ditugu, horien artean sor daitezkeen erlazio eta hierarkiak ere oso antzekoak direlarik. Hala ere, badaude aztertu beharreko aldeak, era xehatua eta tokian tokiko adibideekin izendatuko ditugunak.

Batetik, higienaren ingurukoak izango ditugu. Nahiz eta bainugela osoak, hau da, komuna, konketa eta dutxa-bainuontzia dutenak ia lagin guztietan ikusten diren, herrialde batzuetan berezko azarna mantentzen da. Badaude komuna espazio itxi aparte batean dutenak (Alemania, Frantzia) edo pasabideetan aparteko konketa dutenak (Israel). Gizarteetan higienaren inguruko ohiturak sakon errotuta daude, gainera marketin edota mundu-eskalako ikus-entzunezko produktuetan (filmetan, telebistaioetan...) ikusgaitasun gutxiko espazioak dira. Hau da, telebista higiene-espazio gutxi ikusi izan ditugu, eta, beraz, gutxi desiratzen dugu ikusgarria ez den modeloa.

Bestalde, sukaldearen irekieraren inguruko desberdintasuna aztertu behar da. Joera nagusiak sukaldea egongelarekin bat egitera eramaten gaitu, horregatik, gehienetan, nahiz eta berezko espazio itxi bat izan, salaren ondoko espazioa da. Sukaldea irekia izateak edo ez izateak «american way of life» delakoarekin zerikusia izan dezakeela uste dugu, telebista-saioetako «biki dekoratzaileek» ere mezu hau behin eta berriro zabaltzen dutelarik. Espazio itxia izateak hein handi batean oinarri higienista ere badu, usain zein zikintasunagatik. Baina argi dago sukaldearen espazioa zabaltze honek, tradizionaliki emakumearen lana izan den etxeko lana, apur bat publikoagoa bihurtzen duela. Gai honek beste artikulua bat mereziko luke errotutako matxismoaren, generoaren eta doktrinazioaren arteko erlazio hierarkikoaren inguruan.

Globalizazio kapitalistaren homogeneizazio-prozesuan oraindik sumatzen diren aipatutako desberdintasunak Zaida Muxik azaltzen dizkigu bere tesiaren aurkezpenean: «Berdintasunen barruan, globalizazioaren emaitza arkitektonikoak ez dira guztiz berdinak mundu osoan zehar. Hiru adaptazio modu kontsidera daitezke: Amerikako Estatu Batuak eredu sortzaile bezala; Europa, non eredu hauek historiaren, gizartearen kontzientzia kritikoaren edota tradizioaren indarrez ñabartu egiten diren; eta, azkenik, Asia, Afrika eta Amerika, non ereduaren kopia ez duen eragozpenik, lehenengo munduarekin antza bilatzen den mundu pribilegiatu horren parte izateko».

Bestalde, aipu bereizgarria merezi du gure sorpresarako gehiengoaren diskurtsotik aldentzen den Japoniako ereduak. Herrialde horren barne-distribuzioaren gaian jaioak ez bagara ere, tradizioak markatutako zenbait ezaugarri mantentzen direla ondorioztatu dugu. Aurrena, berriro ere, higienekontuak aurki ditzakegu: etxebizitzarako sarreraren eta bertan oinetakoak gordetzearen garrantziak bere isla du banaketetan, eta bainugela bakarri fragmentaturik agertzen

da (komuna batetik eta konketa-bainuontzia segida beste bi espazio itxitan). Bestalde pasillo edo egongeletan, izaera publikoko espazioetan, armairuen garrantzia suma dezakegu. Amaitzeko, ugariak dira egongela eta logela baten arteko itxitura malguak, non ate-panel irristakorren bitartez bi espazioek bat egin dezaketen. Era honetako itxiturak eta izaera ez-pribatuko armairuak malgutasunaren sustatzaile dira, espazialki zein funtzionalki erabilera modu desberdinak plazaratuz.

### **«Machine à habiter» kapitalista, doktrinamendu-tresna**

Ikerketa lan honen garapenarekin bat, telekomunikazio eta liberalismo ekonomikoarekin zuzenki lotua dagoen homogeneizazio kulturalaren prozesuak arkitektura domestikoan erabateko eragina duela ondorioztatu dezakegu. Kontsumora zuzendutako eta irabazi ekonomikoaren lempaean, etxebizitzaren barne-distribuzio estandarizatuak topatu ditugu, non bizitzeko modu bakar oso antzeko bati bideratuak diruditen.

Orokorrean, aztertutako etxebizitza guztiak «machine à habiter» kapitalista baten irudi izan daitezke. Bizilagunen hierarkia markaturik agertzen da, logela nagusiak duen tamainak zein erabilera pribatuko bainugelak horrela adierazten dutelako. Logelek, era berean, ikusmolde indibidualista oinarri, azalerak handituz banakako jarduerak ahalbidetzen dituzte, bakoitzak bere armairu propioa izatera bultzatzen gaituzte, bakoitzak berea. Bide beretik jarraituz, bainu kopurua logela bestekoa da, intimitate ez-partekatuak indartuz. Sukaldeak, bere horretan, egongelarekin bat egiteko joera azaltzen du, ekinga publiko bezala ulertuta. Hala ere, duten tamaina txikia dela eta, sukaldearen inguruko garrantzia murrizten doa. Sukaldea irudi bezala erabiltzen da, baina betiere kanpoan kontsumitzeko edota alde aurretik prestatutako produktuak berotzeko erabiliz. Azkenik, egongela espazioa gure, non sofa-telebista binomioa protagonista eta erabilera posible bakarra den. Horrela, ikus-entzunezkoen produktuek zein marketin-kanpainak indartzen duten pentsamendu uniforme horren mesederako espazio bihurtzen da.

Homogeneizazio kulturalaren ondorioz, merkatu libre globalizatuaren eskaintzak gehiengoaren gustuak babesten eta sustatzen ditu. Ezaugarri identitario eta bizimodu alternatiboak baztertuz, doktrinazioa azaleratu egiten da, zirkulua itxiz, homogeneizazio-prozesua indartuz.

///

### **Bibliografia**

Ander-Egg, E. (2007): «El proceso de la globalización en lo cultural», *Convivir, aprender y enseñar en el aula*, 187-213.

Muxí, Z. (2004): *La arquitectura de la ciudad global*, Gustavo Gili, Barcelona.